

ELKARRI MOKOKA: Aitor Irastortza eta Mikel Alvarez **ERREPORTAJEA:** Ondare Kultur Taldea
KUXKUXEAN: Udako zorion agurrak **ELKARRIZKETA:** Paco Ayestaran **EKINAREN EKINEZ:** Antsoena

Ikusi
hemen
Mailope



issuu.com/mailopealdizkaria



Egin koxk udari!

Iosu Begiristain (Etxarri)
Bertso berriak
Mailoperi jarriak



Sanpedroekin eman diegu hasiera festetako denboraldiari. Ekaineko azken asteburuan ospatu zituzten Betelun eta Mugiron. Gogoratu abuztuan aldizkaririk izango ez den arren, irailean itzuliko gara.

Mailope oporretan

Zure udako oporrak prestatzen zabilta? Aurten bada motxilan sartzeaz gogoratu beharreko ezinbesteko gauza, gure aldizkaria. Uda honetan zoazen lekura zoazela eraman ezazu zurekin Mailope eta atera ezazu zure udako argazkia.

Urtero zuen oporretako irudiak biltzea gus-tatzen zaigu eta argazki ederrak bidaltzen dizkiguzue. Atzerrira bazoaz nahiz etxetik gertu egun pasa bazoaz, bidali zure udako argazkia. Horra hor aurreko urteetan jasotako zenbait irudi.



ARAXES GARAIKO MANKOMUNITATEA
MANCOMUNIDAD DEL ALTO ARAXES

GARBIGUNE IBILTARIA

Uztailak 27, astelehena, PUNTU GARBIA MUGIKORRA pasako da. Bertara, honako hondakin mota hauek eraman behar dira:

- *pilak, mugikorrak
- *bonbilak eta fluoreszenteak
- *pinturak, barnizak, disolbanteak...
- *autoen bateriak, olioak...
- *toner, tinta kartutxoak...
- *elektrogailu txikiak
- *aerosolak, lixiba
- *radiografiak, termometroak

Herri bakoitzean, etxeko olioak biltzeko dagoen ontziaren ondoan kokatuko da ondorengo ordutegian:

BETELU:	10:00-11:00 (ESKOLA AURREAN)
ARRIBE:	11:00-11:30
ATALLU:	11:30-12:00
AZKARATE:	12:00-12:30
GAINTZA:	13:00-13:30
UZTEGI:	13:30-14:00
INTZA:	14:00-14:30



- 04>** Iritzia
- 08>** Luze: Leire Aranburu
- 09>** Zabal: Oskar Estanga
- 10>** Erreportajea: Ondare Kultur Taldea



16 > Paco Ayestaran

Aspaldikoa da Paco Ayestaran lekunberriarrak zaldiekiko duen zale-tasuna. Hainbat eta hainbat sari irabazi ditu urte hauetan guztietan. Azkena pasa den maiatzaren 30ean, Nazioarteko Zaldi Raid Txapelketa irabazi baitzuen Añezkarren.



20 > Elorri Elkarteak 25 urte

Arribeko Elorri Elkarteak 25 urte bete ditu eta joan den hilean bazkideek urteurrena ospatzeko festa antolatu zuten. Angel Otaegi eta Javier Aristirekin izan ginen elkartearen lehenengo urte haiek gogoratzeko.

- 22>** Kultura: Larraungo Eguna
- 24>** Kirola: Aralarko XIV. Mendi Ibilaldia



26 > Ibai Martirena

Hamalau urterekin hasi zen erremontean Ibai Martirena eta joan den maiatzean egin zuen debuta Hernaniko Galarreta pilotalekuan. Astean bitan ditu orain partiduak eta gustura dabil.

- 29>** 20 urte bidean
- 30>** Ekinaren ekinez: Antsonea Gaztandegia
- 31>** Kontu txikiak

Mailope doan banatzen da honako herrietan: Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruiz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzu eta Uztegi.
Argitaratzen du: Mailope Kultur Elkarteak.
L.G.: NA 719/93
Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esaneren erantzukizunik.

issuu.com/mailopealdizkaria

ERREDAKZIOA: Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ainhoa Iriarte, Itziar Luri, Arantxa Mikeo, Nerea Urbizu eta Andoni Tolosa.
ARGAZKIAK: Labrit, Nerea Urbizu, Ibon Urriaga, PLazaola, Juan Antonio Garaikoetxea, Ondare Kultur Taldea, Nere Iriarte, Gure Esku Dago, Josu Oreja eta Ibai Martirena.
PUBLIZITATEA: Labrit Multimedia - 948 210 103
mailope@labrit.net.
MAKETAZIOA: Araitz Amatria.
TIRADA: 1.600 ale.



Eusko Jaurlaritzak, eskualdeko Udal, kontzejua eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Harrobiak Larraunen gero eta zulo handi-agoak eta ilunagoak

Martxoan Larraungo Udalak presaka onartu egin zuen harrobien gaineko arautegiaren aldaketari hasiera ematea. Aldaketa horren bidez, Larraungo herri guztietan A sekzioan katalogatutako harrobiak eta minak baimendu daitezke, eta kontzejuen oniritziarekin, lehegailuen erabilera eta 500.000 metro kubikoren esplotazioa (orain 250.000 metro kubiko dira).

Hasitako prozesuan Nafarroako Gobernuak bidalitako txostenaren berri izan dugu. Horretan, bolumenaren eta ustiapen motaren mugak kentzeko eskatzen du!!! Honek aldaketa oraindik handiagoa ekarriko luke, eta esplotazioak Udalaren kontroletik kanpo geratuko ziren, inongo mugarik gabe. Udalak ez zuen argudio legalik izango esplotazioei mugak jartzeko.

Hau oso kezagarria da. Ez ahaztu hauxe bera lortzeko Horgobisa enpresak Udala epaiketara eraman zuela. Udalak irabazi egin zuen enpresaren zoritxarrerako. Gaur egungo araudiak legalak dira eta sententzia judicial batek baino gehiago babesten ditu. Orain, epaiketan lortu ez zutena, Larraun osoko araudiak aldatu nahi dituzte Larraungo Udalean, araudi hauek babestu eta Aldazko harrobiari konponbide bat eman beharrean.

Arautegia aldatu nahi izan dute udal eta kontzejuen hauteskundeetan. Bistan da ez da unerik egokiena gauzak behar bezala aztertzeko. Seinale txarra da. Hala ere, Larraungo Udalak arautegia aldatzeko hartutako erabakiari alegazio ugari jarri zaizkio, eta oraindik gaia bideratzeko aukera badago. Larraungo Elkarte, kontzeju eta biztanleek jarri dituzte alegazioak, baina ikusi beharko dugu zinegotzi berriek ibarraren interesak babesteko gai diren. Alkate eta zinegotzi berriek aukera daukate egindako akatsa zuzentzeko, gaur egungo araudia dagoen moduan utziz eta Aldazko afera behar bezala bideratuz. Aztertu patxadaz alegazioak, negoziatu eta irtenbide egoki bat bilatu. Aukera txikiena ere ez eman harrobi handiak egiteari Larraunen!

Kalaxka

Errazkingo ostatua irekitzeko deialdia

Lan egiteko gogoia duzu? Diru premian zaude? Aukera ederra duzu aurten Errazkingo festetan. Herriko ostatua festetan irekitzeko deialdia zabaldu du Errazkingo Kontzejuak. Abuztuaren 6tik 8ra ospatuko dira aurtengoan. Interesaturik egonez gero informa zaitetz 659 414 945 telefono zenbakira deituta.

Kirol Mankomunitatea

Lekunberri eta Larraungo kirol elkarte eta eskolatarako monitore eta entrenatzaileak behar dira 2015/2016 denboraldirako:

- *Futboleko monitoreak.*
- *Nesken Pala Eskolarako monitorea.*

Baldintzak eta informazio gehiago kirolmank@gmail.com edo 649205310 telefono zenbakian.

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.

Hostal Betelu
<http://www.hostalbetelu.com>
Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak
Etorri eta on egin!
Erreserbak: 948513026 676145637

BETELU PNEUMATIKOAK
TAILER MUGIKORRA
NEUMATIKO ALDAKETA ZULATZEEN KONPONKETA
Vicente Iriarte
T. 646 474 166
www.neumaticosbetelu.es

LARRAUN GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA
Gruas y Talleres LARRAUN s.l.
Lekunberriko industriagunea, 21. nabea
31870 Lekunberri Nafarroa
Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarraun@gmail.com

Gezurra agerian

Ekainaren 17an ikusi nuen telebista batean, Nafarroako Parlamentuaren eratzeta, ez osorik, baina bai luzaro samarrean, hau da, hantxe gertatu zenaz ideia bat hartzeko nahikoa eta gehiago. Alegia, ikusi nuen Parlamentuaren eratzeta gehiena euskara hutsez izan zela, ia-ia parlamentari erdiek euskaraz zin egin edota hitz eman zuten, Parlamentuko Lehendakari berria -Ainhoa Aznarez- euskalduna da, Nafarroako hurrengo Lehendakaria ere euskalduna izanen da, non ez den gertatzen egundoko ustekabea behintzat, hogeitaka parlamentari euskaldunak dira, baita UPNko bi ere, eta haietako batek gainera -Cristina Altunak- esan zuen, asmoa duela euskara erabiltzeko naturaltasunez (ea egia den), eta abar, eta abar.

Bai, ekainaren 17an berebiziko aldaketa ikusi genuen Nafarroako Parlamentuan, ez sinesteko modukoa izan zen hasiera batean, ikusita, gehien entzuten zen hizkuntza euskara zela. Birtartean, Yolanda Barcinak berak eta bere kide gehienek hantxe egon behar izan zuten, isil-isilik, entzungailua belarrarian jarrita, txintik ere protestatu gabe, azken udal eta foru hauteskudeetan, nafarren gehienek horrela erabaki zutelako demokratikoki. Eta 13an, Iruñeko Udalaren eratzeta eta Nafarroako gainerako udalen eratzeta ikusi ez banituen ere, badakit haietako askotan ere antzeko egoerak gertatu eta errepikatuko zirela. Eta hori guztia normaltasunik handienarekin, demokraziaren biderik arruntenen barruan, lurrikararik izan gabe, hondamendirik gertatu gabe, tsunamirik pairatu gabe.

Bai, jaun-andreak, aurten ere, aurreko urteetan bezalatsu, UPNko buruzagiak saiatu dira beldurra eta izua barreiatzen Nafarroako gizartearengan, hauteskunde kanpaina osoan, adierazteko beraiek gabe, Nafarroako gizartearen anabasa eta nahaspila nagusituko zirela. Gogoratzen al duzue <euskaldunak etorriko dira!> delako esaldi ospetsu, gezurti eta pozoitsu? Baina, askoren pozerako, ordea, ikusten ari gara denok genekiena, baita UPNkoek ere, alegia, euskaldunak inondik ere etorri gabe, hemen ginela duela milaka urtez geroztik. Bestela, nondik atera dira bat-batean, Nafarroan, hainbeste zinegotzi, alkate jaun-andre, idazkari, parlamentari, lehendakari, eta abar, euskaldun, inondik ere erosi, inportatu edota ekarri gabe? Hots, Nafarroan, orain ikusten ari garen hainbeste hautetsi eta kargudun euskaldun, hemengoak dira; Nafarroakoak. Inork ez ditu beste inondik ere ekarri behar izan, ez Euskal Autonomia Erkidegotik, ez Ipar Euskal Herritik, ez euskal diasporatik, ez eta munduko beste inondik ere; betidanik hementxe bizi izan direlako.

Hauxe izan da Barcina eta bere jendearen gezur ikaragarri handia, oraintxe muturraren aurrean erortzen eta desegiten ari zaiena, eta, jada, ez diete balio ETaren eta gainerakoen terrorismo aitzakia merkeek.

Oraintxe nahi nukeena da, 17an, Nafarroako Parlamentuan ikusi genuen euskararen erabilpena, ez izatea egun bateko antzeppen eder bat, baizik eta eguneroko funtzionamendu normala, han, eta gainerako udal euskaldun guztietan gutxienez, alegia, ez gelditzea itxurakeria hutsean.

Xanti Begiristain Madotz, Auritz

Cederna Garalur elkarteak Turismo teknikari bat kontratatu nahi du Baztan-Bidasoa Garapen Turistikoan lan egiteko

Cederna Garalur elkarteak Turismo teknikari bat kontratatu nahi du Baztan-Bidasoa Garapen Turistikoan lan egiteko. Lanpostu honetarako hautagai izateko persona batek bete behar dituen baldintza gutxienekoak hauek dira:

- Turismo arloko diplomatu titulua edo baliokidea izan;
- Euskalduna izatea, frantsesa edo ingelesa menperatzea;
- Eta B1 gidabaimenta izatea.

Aipatutako lurraldean turismo ekintzak dinamizatu eta koordinatzea izango du eginkizun nagusi.

Kontratua egun erdikoa izango da sei hilabetez, baina luzagarria izan daiteke. Kurrikulumak Malerrekako Mankomunitatean utziko dira, astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era. Ekainaren 18a da aurkezteko azken eguna.

Argibide gehiagorako: www.cederna.eu/eus/ web orrian kontratazio protokoloa aurkitu daiteke. Tlf: 948 206 697

Cederna Garalur

GARAZ Zure behar eta ordubegira moldatuko gara

ETORRI ETA INFORMAZIO ZAITEZKI!

Mate
erdi eta goi zikloetarako prestaketa

Fisika inglesa
lengua kimika

948 504 450

648253521

marrasketa teknikoak

euskera historia

unibertsitate mailako ikasgaiak

ALBI Taberna-kafetegia

Eguneko menua, jai egunetako menua, bokatak eta pintxoak

Herriko plaza, 948 604 554,
Lekunberri

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

Bertso berriak Mailoperi jarriak

Iosu Begiristain (Etxarri)



*Lana eta ekintzarako
Badago beharra
Itxaropen desio
Delako earra
Elkar gaitezen denok
Euskadi, Naparra
Beharrekoa baita
Guztion indarra*

*Ametsetik begira
Doan aldaketa
Gure eskutan dago
Indarrez beteta
Ta herritarrak berriz
Ilusioz aseta
Iritsi da eguna
Eiteko hausnarketa.*

Doinua: "Mendiko umea naiz"

- 6 -



BELCOSEN KONTZERTUA LEKUNBERRIN

Udan Nafarroako Gobernuak antolatu den Kultur egitarauaren baitan aurtengoan Jose Mari Belcos musikari iruindarrak "Septiembre" izena duen bere bigarren diskoa aurkeztuko du Lekunberrin. Kontzertua abuztuaren 6an izanen da iluntzeko 20:30ean herriko plazan.



ERDI AROKO AZOKA

Abuztuaren 9an urteroko azoka izanen da Lekunberriko alde zaharrean. Artisauak, musikariak, antzerkia eta erakustaldiak izanen dira egun osoan zehar.



UDAKO ZINE EMANALDIAK

Aurtengo udan zine emanaldiak izanen dira Lekunberriko frontoian. Eskainiko dituzten filmak oraindik zehazteko dauden arren, uztailaren 21ean eta 28an eta abuztuaren 4an eta 11an, gaueko hamarretan izanen dira.

Herriak vs hiriak



Aitor Irastortza

Kaixo Mikel! Ze martxa? Jada udarako planekin gozatuz ezta? Nik dagoeneko atal honetan idatziz urtebete egin dudanean, etapa honi bukaera ematea erabaki dut. Gure irakurleei zer pentsatu utziko genielakoan, nik ere asko ikasi dudala aitortu eta esker ona adierazi nahi dizuet bai zuri, Mikel eta baita aldizkariko lagunei ere. Azken mokokada honetan gainera, ilusio eta itxaropen berezia sortu didaten bi proiekturen inguruan idatzi nahi nizuke: “BiziLarraun-

“Inguruan ditugun pribilegioak baloratu eta gozaten ahalegindu beharko genuke”

bizi” eta “Ondare kultur taldeaz” hain zuzen ere. Lehen gure haraneko herrixkak berpiztu eta indartze-ko asmoarekin jaino da eta bigarrena berriz, haranean ditugun ondare kulturalak zaindu eta ezagutarazteko asmoaz. Biek, larraundarron autoestimua auzolanaren bidez sendotu nahi dute, zer pentsatu emanez ahal bada. Gure ibarraren inguruan hausnartu eta zenbait ondorio atera ditut. Horietako bat hiria vs herriari buruzkoa. Gaur egun udaletan hirigintza planak ohikoak dira eta aho batez onartzen direla dirudi, baina hori al da bide zuzena? Nire ikuspuntutik hauek dira hiriek transmititzen dizkiguten baloreetako batzuk: diruarekiko menpekotasuna, tresneria edo materialekiko menpekotasuna, berehalako plazera, egoismoa, bakardadea... herrietan ezohikoak diren aukera batzuk eskaintzearekin batera. Herrietan berriz, denbora mantsoago doa, ia denok ezagutzen dugu elkar (bere alde on eta txarrekin), animaliak eta natura ditugu inguruan, une bakoitza gehiago bizi dugu... nahiz eta hirietan lor daitezkeen pribilegio horiek, berehala lortzeko aukerarik ez izan. Balantzan jarrita, askotan herritarrok hiritarrei inbidiaz begiratzen diegula iruditzen zait, baina guk ere inguruan ditugun pribilegioak baloratu eta haietaz gehiago gozaten ahalegindu behar genukeela deritzot. Hauteskundeak igaro berri diren honetan, ordezkari berriei, honen inguruko gogoeta egin eta herritarrokin batera gure herrixken alde lan egiteko eskatzen diet, poliki-poliki gure baserriak hustuz baitoaz... Araitz aldean nola zabiltzate? Besarkada bat lagun!



Mikel Alvarez

Aupa Aitor! Zuk esan bezala, uda ganean daukagu eta nahiz eta eguraldia orain arte petral samar ibili den, prest gaude oporraldiaz gozatzeko. Ikusten dudanez, ez zaitut bidelagun edukiko hemendik aurrera... Nire kasuan 4 urte dira hilabetero-hilabetero gure aldizkari honetan idazten eta gustura egin dut; hala ere, norbaitek nahiko balu atsegin handiz pasako nioke lekukoa. Bitartean, hemen jarraituko dut proiektu honetan nire ekarpen xumea egiten. Gure herrien ganean askotan hitz egin dugu Aitor, eta oso garrantzitsua den gaia dela iritzi dut. Gure herrien aktibazioa

“Herrietan sentimendu kolektibo indartsuagoa dago”



eta herri boterea elementu zentrala da eskualdeen bizitza mantentzeko. Zentzu horretan, Larraun bizi eta Ondare Kultur taldeen sorkuntza norabide egokian kokatzen den pausoa da. Hala ere, herrien aktibazio horretan hanka sartzen dugu maiz eta garrantzitsuena, nire ustez, beti paradigma berdinetara mugatzea da. Hobeto azalduko dut: herrietan ditugun mugimendu eta talde

gehienak kulturaren eta aisialdiaren esparruan kokatzen ditugu eta gai sozioekonomikoak, esaterako, instituzioen edo udaletxeen eskuetan uzten ditugu. Agian horrekin zerikusia du herrietako eta hirietako mugimendu eta oro har, hiritarrek; herrietan sentimendu kolektibo indartsuagoa dago, baina eskema zurrunagoak maneiatzen ditugu, hau da, gehienetan afera berdinen inguruan antolatzen gara. Hirietan, ordea, ez dago sentimendu kolektibo hain indartsua eta zailagoa da talde nortasun bat garatzea, baina malgutasun hori existitzen den heinean, afera ugariaren inguruan antolatzen diren herritarrek aurkitu ditzakegu. Dena den, asko daukagu ikasteko herriek hirietatik eta hiriek herrietatik. Ziur harremana eta elkartrukea aberasgarria dela bientzako. Herritarrok subjektu aktibo eta protagonista izan nahi badugu, gure bizitzaren esparru guztietan izan behar dugu protagonista.



Leire Aranburu

LUZE


Herdoildutako sistema

Kaixo irakurleok, sasi idazlea nauzue. Oraingoan osasun sistemaz arituko naiz. Ez dut uste guk uste duzun bezain beste ezagutzen dugunik. Nik osasun sistema honen guztiaren errealitate txiki bat kontatu nahi dut. Esan beharra dut (duela oso gutxitik) laborategiko teknikaria naizela, (ez badakizue zer den lasai, sinplifikatzeko esan dezagun diagnostikoan laguntzeko analisis ezardurazten naizela). Hain zuzen ere, horrexegatik saiatu nahi dut errealitatearen ikuspuntu bat ematen kanpo eta barne begirada batetik.

Lehenik eta behin esan nahi dut itxaronaldiak oso luzeak izaten direla. Bai hala dira. Eta hau justifikatzeko bururatzten zaidan argudioa, argudio ekonomikoa da, askotan itxaronaldi hauen atzean aparatu konplexuak erabiliz egin behar diren probak egoten dira, aparatu hauek oso garestiak izaten dira, eta beraz ez dira edozein lekutan izan, (imajinatu dezakezue aparatu bakar horrek edozein momentutan akats txiki bat izanez gero zer gertatuko den). Honetaz gain, esan nahi dizuet medikuek estandarizatuak dauden prozesu batzuei jarraika egin behar izaten dutela lan eta prozesu hauek ezin direla nola edo hala aldatu.

Itxaronaldiak luzeak izateaz gain, ondoren agiri, paper, oniritzi eta doku-

“Nahiz eta oso nekagarria izan inork ez du jaso nahi beste gaixo baten diagnostikoa edo botika”



mentazio guztia daukagu, hauek guztiz beharrezkoak dira, kasu honetan esan beharra dut kexak batzuetan gehiegizkoak izaten direla. Nahiz eta oso neka-

garria izan inork ez du jaso nahi beste gaixo baten diagnostikoa edo botika. Eta bai, kontsultaren atea zeharkatzen dugun momentu berean zenbaki bihurtzen gara, gauza ez oso goxoa. Baina gure datuen babesa ziurtatu nahi dugu eta hau da horretarako dagoen modu erraz eta zehatzena.

Askoz ere gauza gehiago aipatuko nituzke baina uste dut aipatutako bi hauek direla kexu gehin jasotzen dituztenak. Egia da zuei nire iritzia eta justifikazioak berdin zaizkizuela, konponbideak nahi dituzula eta hara non, ez dudan konponbiderik. Baina gogorazazi nahi dizuet, herdoila ez dela kanpo eragilerik gabe sortzen, agian kanpo eragile horien ekintza ezberdina balitz hau aldatu egingo litzatekeela. Azkenaldian Iruñea aldera joan bazarete konturatuko zineten bertako osasun sistemak aldaketak jasan dituela, kanpotik oso aldaketa polita dirudi baina ez da batere funtzionala, barne begiradatik esaten dizuet aldaketa hau atzerakada iruditzen zaidala. Horregatik arazo hau konpontzeko zuen laguntza eskatu nahi nuke, mesedez kexatu zaitetzte, baina ez osasun zerbitzua osatzen duten langileez, kexatu sistema hau “antolatzen” duten horietaz, antolatu bai baina gutxitan oso gutxitan erabiltzen duten horietaz.

SAStraka
auto 4x4

Ibilgailuen Mekanika Orokorra
(azterketak, gurpilak, olio aldaketak,...)

Baita Todoterrenoetan Espezializatua ere
(prestakuntzak, homologazioak, erreformak,...)

Industrialdea, 9 948.60.48.06 Iñigo
31870 Lekunberri www.sastraka4x4.com

M. Angeles Urrizalki

iragarkiak, berriak, eskelak...

Diario Vasco eta Diario de Navarrako Korrespontsala

948513056
699179437

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890

948 513 083
696 732 290

aitzberri@hotmail.com



Pilatutako beldurren zama

Beldurrik gabe idatzi nahi nuke gai honen inguruan. Egoerak bizitu ahala, esperientzia pilatzen zaidan heinean, bizitzako arlo batzuetan lasai eta eroso mugitzen naiz, beste batzuetan aldiz badago zerbait lasai egoten uzten ez didana. Orokorrean nire izaeran badago oinarri berezi bat, ohartzen naizena denean dagoela, erabat run-runean... Azkenaldi hauetan egiten ari naizen lan batzuen ondorioz, ohartu naiz txikitatik beldur batzuk nirekin daramatzadala eta horiek eragiten didatela egiten dudana ia guztian.

Beldurra tresna garrantzitsua dela iruditzen zait bizitzarako, arrisku batzuen aurrean presta gaitzake eta hori oso baliotsua da. Baina gure gizartearen kontrol moduan ere erabili izan da. Modu batera izan gaitezene, beldurrak sartu zaizkigu, infernuari beldurra, pobre izateari beldurra, modu batekoa ez bazara ez maitatua izateari beldurra... Horiek gauza naturalak ziruditen, baina sortutako beldurrak dira, gizarte eredu bat mantentzea bideratu nahi dutenak.

Oso inguru beldurtian bizi garela iruditzen zait. Kristautasunaren seme-alabak gara, eta beldurra oso presente egon da erlijio honetan, baita kulpaa ere, sarritan gauza natural direnen inguruan... Beldurraren ondokoa da lotsa, debekatutik gertu dagoena egiteko lotsa. Hitz egiteko beldurra ere egon da, ohikoak ez diren gauzei gerturatze beldurra... Bestalde, lan askoren ondorioz duguna izatea lortu dugu eta beldur asko dugu hori gaitzeko.

Harrigarria egiten zait gaur egungo bizimodu eredu pila ikusita, nola gure inguruan askotan bizitzeko modu

“Nire oraingo lanak izan behar du ohartzea zein beldur dauzkadan alferrikako”



bakarra dagoela ematen duen, ohitura berdinak (mugitzeko edo aldatzeko oso zailak direnak), erlazionatzeko modu berdin-tsuak... Joera ia berdintsuak gizaki askotan. Eta nola ez, beldurrak ere berdintsuak. Ohartu gabe barnertuak, intentziorik onenarekin, maitasun guztiarekin... baina garen bezalakoak izaten uzten ez diguten beldurrak. Aldatzen uzten ez diguten beldurrak.

Oraindik gogoan dut nola auzoko etxera joan nahi nuen eta ezetz, ez joateko, “sakamantekas” aterako zela eta,

ni hala ere joan, eta non ateratzen zaidan zaku zahar batekin izaki bat etxe ondoan! A ze beldurra! Bueltan etxera, pasa-pasa eginda! Intentziorik onenarekin izango zen, ni “kontrolatzeko”, baina beldur hori hor gelditu zitzaidalda uste dut... Bekatuari beldurra ere, izan nuen eta oraindik hor bueltaka dabilkidala uste dut... Bizitza arraro eta ezberdina eramateari ere, oraindik bizitzan zer gertatu ahal zaidanak beldurra ematen dit, ez doalako bide “ohikotik”... Zer esanik ez poliziari beldurra, disidentziari beldurra...

Garrantzitsua izan da niretzat ohartzea beldur horiek baditudala. Ustez ez diet garrantzirik ematen, edo arrazionalki gaingituak ditut, baina nire sentipenetan hor dabilta bueltaka, emozioetan eragiten didate, momentu klabeetan eta ezustean, abisatu gabe agertzen dira eta nire ekintza baldintzatzen dute. Nire oraingo lanak izan behar du ba ohartzea zer beldur dauzkadan alferrikako eta pixkana (hau ez baitut noski egun batean egingo) horiek kentzen joatea da asmoa.

Bukatzeko, esan ez diodala inori kulpaa bota nahi honen inguruan. Pentsatu nahi dut, pertsona zital bat edo beste badagoen arren munduan (min asko jasoko zutenak ziur aski, eta oraindik ere beren buruari min egiten dietenak), orokorrean jendeak beldurrak sinisten dituelako dituela. Zer esanik ez gurasoek eta familiak, beraien beldurrak intentziorik onenarekin pasatzen dizkigute. Baina benetan laguntzen digute? Ez badigute laguntzen, kanporatzeko proposamena egiten dizuet. Beraz, animo gure bideetan beldurrik gabe!

**AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24**

**TAXI
SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza**


CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884



Ondarea berreskuratzeko bidean

Ondarea mantentzea eta berreskuratzea kezka garrantzitsua izan da gizakiarentzat mendeetan zehar. Egun ordea, askotan behar baino gutxiago erreparatzen diogu ondareak (materialak zein materialgabeak) duen garrantziari. Larraunen, horretaz arduraturik, Ondare Kultur Taldea izeneko elkarte bat sortu dute eta oraindik lan-ildoak zehaztu ez badituzte ere, lanean hasteko gogoz daude.

Javier Irigoien lekunberriarra, Ondare Kultur Taldearen sortzaileetako bat da eta berak azaldu dizkigu proiektu honen nondik norakoak. 2014an Nekazari Eguna berreskuratu zuten zenbait herritarrek, 1996tik ez zela halakorik egiten. Aralar Musika Eskola megafoniaz arduratu zen, baina antolaketan horretan zebiltzala Nekazari Egunaren aurreko aldietako bideoak berreskuratu zituzten. Javier: “*Kixmi Kultur Taldeak bere garaian grabatutako bideoak bildu genituen eta Josetxo Goldarazena ere beste zenbait lortu zituen. Azkenean konturatu ginen edizio guztietako bideoak genituela esku artean eta horrekin muntaia txiki bat egin zen*”.

Alde batetik garai bateko Nekazari Eguneko antolakuntza bera arduratu zen bere garaian grabazio lan horiek egiteaz. Bes-

tetik, Kixmi Kultur Taldearen lana zegoen. 1983tik 1991 arte egon zen martxan talde hori eta arlo ezberdinetako hainbat eta hainbat ekimen antolatzen zituen. Gainera, bideo kamera bat ere bazuten eta Larraunen egiten ziren jarduera ezberdinak ere grabatzen zituzten. Egindako grabazioen artean daude esaterako Mikel Laboak Lekunberriko frontoian eskeinitako kontzertua edo Hertzainak taldearena... Javier: *“Antolatzen ziren jarduera gehienak partikularki antolatzen ziren. Kixmik tarteka piragua ikastaroak edo mendi irteerak ere antolatzen zituen eta horiek denak automatikoki grabatu egiten ziren”.*

Etnografia erakusketa bat ere antolatu zuen gazte talde hark. Lehenik etxez etxe ibili ziren lanabes zaharrak biltzen, ordurako gehienak ganbarako izkinarren batean ahaztuak zeuden. Azkenean lanabes pila bat bildu, garbitu eta berreskuratu ondoren, Lekunberriko frontoian izugarritzko erakusketa egin zuten. Argazki zaharren bilketa bat ere egin zuten etxez etxe eta liburuxka batean argitaratu zituzten. Geroztik, argazki zaharren bilketa Mitxausenea Kultur Etxean egiten da tarteka.

Javier: *“Joan den urtean Nekazari Eguna grabatzeko hitz egiten genbiltzala gogoratu ginen Kixmi taldeak egiten zuen lanaz eta aurreko grabazioak ikusten hasterako izugarri gustatu zitzaigun garai bateko irudiak eta herritarrak ikusteak. Bideo bera behin eta berriz ikusten genuen bakoitzean gauza berriak topatzen genituen. Bere garaian Maitane Urbizuk berak ere hainbat elkarrizketa egin zituen eta larraundar askok parte hartu zuten, eta hori familarentzat altxor bat da, baita herritarrentzat ere, baina horren transmisioa egitea falta da eta oraindik ere bilketa asko egin daiteke”.*

Gauza batek bestera eramanean zituen eta jabetu ziren ondare asko bildu gabe dagoela. Dagoeneko elkarte bezala erregistratuta dago Ondare Kultur Taldea eta pixkanaka lanean hastera doaz.



Uitziko Anizetoren bueltan apustuak egiten ziren garai batean.

“Exijentzia handirik gabeko partehartzeak proposatzen ditugu”

Grabazio lan batzuekin eta elkarrizketak egiten ere hasi dira jada.


Taldean lan egiteko herritar eta erakunde zenbaitekin hitz egin duzue dagoeneko...

Bai. Ondarea bera oso zabala da eta asmoa alor ezberdinak lantzen joatea da. Hasi gara batekin eta bestearekin gure asmoei buruz hitz egiten eta ideia ederra iruditu zaie. Adibidez, Lourdes Navarrokekin hitz egin nuen eta bera

prest dago parte-hartzeko musikaren arloa lantzen badugu esaterako. Arkaitz Goikoetxearekin ere egon nintzen bertsolaritza nahiz hizkuntzarekin lotutako lana egiten dugunerako adibidez. Ttuturre Kirol Taldea ere prest egon liteke momentu jakin batean parte-hartzeko... Dena den udazkenean bilera bat egitekoak gara herritarrei gure asmoak azaldu eta lan-ildoak zehazteko, izan ere, horretarako jendeak duen parte-hartzeko gogoia eta konpromisoa ikusi beharko dugu lehenik. Orain gutxi sortu berri da “BiziLarraunbizi” taldea eta zenbait arlotan, baliteke beraien helburuak eta gureak eskutik joatea. Ttuturrekoek ere trikuharrien lana nahiko aurreratuta dute eta egunen batean publikazio interesgarriren bat



Larrazpilgo triku-harria garbitzeko mendi irteeran parte hartu zuten dozena bat lagunek.



egin daiteke. Helburu orokor bat dugu eta orain gure asmoek herritarrengan duten harrera ikusi nahi dugu.

Dagoeneko elkarrizketa batzuk ere egin dituzue...

Bai, Mikel Berekoetxea ibili da horietako zenbait egiten. Adibidez, apirilean Manolo Galarzari egin genion artzaintza tradizionalari eta beste gai batzuei buruz. Momentu jakin batean arlo batean erreferente izan den jendea elkarrizketatu nahi dugu eta gauza pila bat kontatu diezaguketen jende asko dago. Bilketa prozesuari ekin diogu eta hausnartu egin beharko dugu beste zein arlo interesgarri landu ditzakegun. Adibidez Aste Santuetan auzolan bat antolatu genuen, mendi irteera egin genuen Larrazpileko trikuharrira garbitzeko aitzakiarekin eta jendea kontzientziatzeko. Orain gutxi Uitzin korrika egiteko Anizetoren buelta deitzen dioten lekua berreskuratu genuen. Garai batean apustuak egiten ziren bertan. Juanjo Zubietak uitziarrekin hitz egin zuen eta animatu eta egun batean toki hori berreskuratzeko lanak egin zituzten.

Beraz, zuen helburua zein da?

Guk nahi duguna batez ere da, daukagun ondarearekin fondo bat egitea eta ametsa izango litzateke egunen batean erakustoki iraunkor bat edukitzea eta

fondo horretan oinarritutako proiektu ezberdinak bideratzea. Udazkenetik aurrera, eskolarekin ere harremanetan jarri nahiko genuke zenbait proiektu bideratzeko. Izan ere interesgarria litzateke bertako gaztetxoaren parte-hartzea batez ere hedatzea bideratzeko orduan. Edo interesgarria litzateke irakasleek ere unitate didaktikoetan bertako ondarearen oinarritutako ikasgaiak sartzea.

Taldea dagoeneko erregistratuta dago...

Bai, aurtengo otsailean legezatu genuen, Ondare Kultur Taldea izenarekin. Batez ere legez urtebete martxan egotea da baldintza diru-laguntzak jaso-tzeko. Eta prozedura adminitratibo bat baino ez denez, dagoeneko taldea erregistratu eta urtebete honetan taldearen lana finkatzen joan gaitezke. Egunerokoan erakunde ezberdinetan lan egiten duen jende asko dago eta bakoitzak bere postutik ere lagun dezake. Oraingoz gure ideiak harrera ona izan du eta esan digute momentu jakin batean lantzen dugun proiektua interesgarria iruditzen bazaie prest egongo direla parte-hartzeko. Behin bere esparruko proiektu hori amaitzen denean, seguru aski hurrengo proiektuan ez du parte hartuko modu horren aktiboan.



Azkarateko Katarain estudioan, grabaketa lanetan. Arg: Satur Eleta.

Lan gehiena musu-truk izango da, baina difusiorako dirua ere beharko duzue...

Bai, zenbait diru-laguntza izaten dira eta finantziario bideak ere landu beharko ditugu. 1998an, Rriskitinen diskoa kaleratu eta aurkezpen kontzertua eskaini zenean, Euskara Zerbitzuaren diru-laguntzarekin bideratu zen batez ere, baita Aralar Musika Eskolaren eta Nafarroako Gobernuaren finantziarioarekin ere. Gorritin egin zen aurkezpen hartan, haraneko jende askok egin zuen lan. Oskorri taldeko Natxo de Felipe ekarri genuen aurkezpen lanak egiteko eta horren aitzakiarekin hemengo musika pasagenion bere errepertorioaren barruan difusioa egin zezan.

Uste duzu jendea inplikatu dela?

Gaur egungo gizartean jendea inplikatzeko zaila da, baina horregatik hain zuzen ere gure apustua da bakoitzak exijentzia maila handirik gabeko parte-hartzeak egitea, inor erre ez dadin. Adibidez, Uitziko Anizetoren buelta egiteko inte-

“Gure ondarearen fondo bat osatu nahi dugu”

Eta zuen asmoa zein da bilketa egin ahala hedatzea ere bideratzea?

Lehendabizi, helburu nagusia biltzea da. Eta bildutako material hori, nolabait modu zientifikoan aztertu eta katalogatu beharko da. Ikusi beharko da ere aurretik material hori dagoeneko norbaitek edo erakunderen batek bildu duen, ez gara itsu-itsuan biltzen hasiko. Horretarako Nafarroako Unibertsitateko Filologia departamentuko langileekin izan gara dagoeneko, Patxi Salaberri katedraduna bera prest agertu da trebakuntza bat emateko eta gidaritza bat egiteko.

BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 576
info@bidegoxo.com

Industrialgunea
Lekunberri 9 - 31870
LEKUNBERRI

Cyclos IREBER

BIZIKLETA DENDA ETA TAILERRA

Iñigo - 637 781 789
cyclosireber@yahoo.es - www.facebook.com/cyclosireber

resa zutenak batez ere uitziarrak ziren, horietariko batzuk gero seguru aski ez ditugu ikusiko adibidez musikagintzan. Hori izan da parte-hartze puntual bat alor horretan. Eta alderantziz. Gaiak zuregan motibazioa sortzen badu errazagoa da. Ni adibidez ez naute hemengo fonetika aztertzen ikusiko, baina ziur naiz beste askori gustatuko zaiela, gaiaz ere gehiago jakingo dutela eta horrek gogoia piztuko diela.

Eta zuk zer esango zenieke herritarrei? Ba bilerarako deialdia egiten dugunean hurbildu daitezela eta badugula ere helbide elektronikoa ondarekulturtaldea@gmail.com nahi izanez gero eta bilerara joan ezin badira horren bidez ideiak bidaltzeko aukera dutela edo gu-rekin harremanetan jartzeko. Proiektu hau oso interesgarria iruditzen zaigu ez bakarrik duen garrantziagatik, bai-

ta gustu eta arlo ezberdinetako jendea proiektu bakar baten bueltan elkartu daitekeelako ere. Azken batean eremu txiki batean bizi arren bakoitzak bere eguneroko pertsona talde batekin egiten du eta halako ekimen batean lan egiten konturatzen zara agian beste askorekin gauza asko izan ditzakezula ere komunean.

“Asko eskertzen dute transmisioa posible izango dela jakiten dutenean”

Mikel Berekoetxea ibili da orain arte Ondare Kultur Taldeak egin dituen zenbait elkarrizketa bideratzen.

Zer moduz moldatu zara elkarrizketetan?

Ongi, oso gustura, aurrez, gidoitxo bat prestatzen dugu, Artxuloko Juanjorekin, eta gai bakoitzari lotuta, “ondarearen” ikuspuntutik ze gai diren interesgarriak sailkatzen ditugu. Ondoren, elkarrizketari itxura emateko, gai horiek, urte aroka bideratzen ditugu, hau da, neguko lanak, udaberrikoak, udarakoak eta udazkenekoak. Modu honetan urte oso bati errepaso emanaz informazioa jasotzeko eta elkarrizketatzeko pistak osatzen ditugu. Asko eskertzen dute “transmisioaren gaia” posible izango dela jakiten dutenean eta gu gazteok horren beharrez ohartu garela ikusten dutenean.

Ze pertsona elkarrizketatu dituzu?

Orain arte lau elkarrizketa egin ditugu. Lehenengoa. Arraratsen, Basaburuan, Arto kordak egitearen inguruan, udazkenean, soronetatik arto buruak etxetara ekarri eta zuikinek prestatuz, auzolanean etxez etxe ibiltzen zireneko lanak, gauetan, inguruko kantak, ohiturak, ... Elkarrizketatutakoak, Berueteko Atxoaneko Joakina eta Igoako Otsanbelako bordako Ezkurratarak diren hiru anaia Joakin, Tomas eta Juan Jose.

Bigarrena: Leitzako Astitz zurgindegiko nagusi zaharra, Ramon Astitz. Sortzez larraundarra den Arruizko Zurgineneko semea. Zurgintza eta sorkuntzaren inguruko elkarrizketa,



hainbat lanabes eta tresna egiten zizutenekoa eta motorrak sartzen hasi zirenekoa zurgintzeko makineriari...

Hirugarrena. Araizko, Gaintzako Ostokaizko nagusia, orain ez naiz izena oroitzen. Artzaintzaren ingurukoa, gaztetan nola joaten zen morroi Amezketako batekin Irun aldera negutzero artaldearekin eta ondorengo urteetan berriz berak bere artaldearekin Gaintza eta Aralar bitarteko jakinduriak... artileaz, haria egiteaz...

Laugarrena. Mugiroko Benta Zaharreko Manolo, Mugiroko artzaintzari buruzkoa, gaztagintza, beste artzaintza mota bat.

Ze iruditzen zaizu halako talde bat sortzea ondarearen bilketan eta hedatzean lan egiteko?

Ni ere ohartzen naiz, ezjakin hutsa

naizela. Batetik, etxean ikasitako lan ohituren jakitun naiz, bestetik industrializazio urte hauetan, nekazaritza ere intentsifikatzeko bidean, Nekazaritza Ingeniaritzan ikasitakoaz, oso desberdin lan egiten da orain. Bi hauen artean talka haundiak daude, kontra esan handiak. Holako dinamika batean sartzen zarenean, gauza asko ikasten dira, hortik nire buruari ezjakintasunarena. Nafarroako gizarteak, oharkabea, urte askotan pilatutako jakinduria, modernismo garai hauetan, urte gutxitan, hori guztia, galtzeko arrisku handia daukala uste dut, are gehiago, asko jada galdu dugula, adineko jendearen galerarekin batera. Hortik Ondare Kultur Taldearen beharra, jakinduriak jaso eta transmisioan oinarritzeko, hau guztia, adinekoak galdu aurretik.

Eskerrik asko, Irantzu

Oso eskertuta daude guraso eta ikasleak hiru urtez Ibarberri eskolako haur hezkuntzako irakasle izan den Irantzu Zabalarekin. Joan den ekainaren 16an bere lana eskertzeko omenalditxoak egin zioten eta uda ona pasatzea opa diote.



“Erabakiaren aroa hasi da”

Hala adierazi dute Gure Esku Dago ekimeneko antolatzaileek joan den hilaren 21ean Euskal Herriko hiriburuetan ospatutako ekitaldi nagusiaren ondoren. Iruñean zegokien larraundarrei eta araitzarrei euren oihal metroak josi eta goratzea. Goizean Iruñeko Alde Zaharra kolorez bete zen, erabakitze-ko eskubidearen alde dauden txoko ezberdinetako nafarrez. Hala euren oihalekin giza kate bat osatu zuten. Egun osoan kultur eta kirol ekitaldi ezberdinez gozatzeko aukera izan zuten eta arratsaldean zezen-plazan ekitaldi nagusiarekin borbildu zen aldarrikapena. Hauek antolatzaileen hitzak: “Gaur, bost euskal hiriburutan erabakia ahalbidetuko duen hautestontziari, erabakiari berari begira jarri gara milaka euskal herritar, denon borondateek ehundu duten hautestontzi horri begira. Abiapuntu horretatik, erabakiaren aroa hasten dugu gaur, dinamika honen fase definitiboa, behin-betikoa; gaur hasi eta erabakiaren egunean amaituko den azken txanpa”. Eta horretarako borondateak ehuntzen jarraitzeko konpromisoa hartu dute antolatzaileek.



Ikus-entzunezko lau emanaldi Sator-filmen eskutik

Arribeko Satorzulo lokaleko gazteek bigarren urteurrena ospatu berri dute. Sortuz geroztik ekintza ugari antolatu dituzte eta udara honetarako Sator-film jardunaldiak antolatu dituzte. Bertako gazteen aisialdirako egitasmo ezberdin bat gehiago eskaini nahi dute. Uztailean zehar lau pelikula edota dokumental eskainiko dituzte, denek izango dute atzean hausnarketarako pisua eta aukera. Egitaraua Agendan. (Ikusi 31. orr.).



urrutia
enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia

ARRIBE

ADIII! TLF BERRIA:
948 51 30 32



IORTIA



HORTZ KLINIKA

Juanjo Gaité García
Odontologoa Kol. Zbkia. 317

Tel. 948 467 603
Altsasu

Tel. 948 604 804
Lekunberri

www.clinicaiortia.net

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA

Haur, gazte eta heldu, denok antzeztera!



Kaleko II. Antzerki Festibala ospatu zuten joan den hilean Intzan. Asteburu oso bat antzerkiari lotutako jardueretan parte hartzen eman zuten, ipuin kontalariak, antzezanak, sormen tailerrak eta dantza... Eta noski tartean herri-afariren edo bazkariaren bat. Eguraldiak igande arratsaldera arte gehiegi lagundu ez bazien ere aurreikusitako ekintza guztiak egiteko aukera izan zuten eta jende asko hurbildu zen Intzara. Antolatzaileak pozik daude eta hurrengo udaberrian berriz ere errepikatzeko gogoiz.


Uda honetan ere arduraz

Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak udara honetarako zenbait prebentzio kanpaina jarri ditu martxan. Udan alkoholaren eta bestelako sustantzien kontsumoak gora egiten du eta baita auto istripuek ere. Hori dela eta Gizarte Zerbitzuak urteak daramatza prebentzio kanpainak martxan jartzen, besteak beste Taxi jaia. Aurten ere Irurtzun, Leitza eta Lekunberriko jaietan eskainiko zaie zerbitzua Larraungo eta Beteluko herritarrei. Gaueko hamabietan izanen du irteera ordua eta goizaldeko hiruretan, bostetan eta zazpitan itzulera. Bidaia bakoitza 1,5 euro baino ez da ordainduko. Bestalde, festak diren herrietan alkoholometroak banatuko dituzte, jendea sentsibilizatu eta alkoholaren kontsumoa neurtzerakoan, positibo emanez gero autorik ez hartzeko.

Horrez gain, 15 eta 16 urteko gazteentzako eta beraien familiarentzako kanpaina bat ere egingo dute "Alkohola neurritz kanpo edatea". Iosune Zabala: "Ikusten dugu gaztetxo batzuen ohituretako bat gehiegi edatea eta denbora gutxian hartzea dela eta kanpaina honekin horri buruz pentsarazi nahi diegu". Horretarako, motxila bat bidaliko zaie gazteei etxera gutun batekin, gazteak ez ezik gurasoek ere duten arduraz sentsibilizatuzko.

Gazteek ere euren eguna

Joan den hilaren 13an Mailope Gazte Asanbladak antolatutako Gazte Eguna ospatu zuten Lekunberri. 40 lagun baino gehiago elkartu



ziren frontoian egin zuten bertso bazkarian. Maddalen Arzallus eta Agin Laburu arduratu ziren bazkalostea bertsoekin girotzeaz. Arratsaldean guarrolinpiada saioa egin zuten, denetariko probekin. Eta gauean gaupasa ederra egin zuten Nik Khaos, Ahuntzape eta Gabenararekin.

Antsonea
ARDI LATXAREN ESNE GORDINEZ
%100 EGINDAKO GAZTA ONDUA.
TF. 948 51 34 68. antsoneagaztak@gmail.com. Urtegi

Atabal
akindegia
Era askotako
ogiak eta gozoak
Etxez etxe
banatuko dugu
Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE
harategia

BERTAKO HARAGIA
Txistorra, txorizoa,
saltxitxak,
sukaldataurako platerak.
Etxera eramateko
zerbitzua ere eskeintzen
dizugu.
Antigua Kalea N°7
31890 BETELU
Telf: 948 51 30 88
maiteharategia@hotmail.com

*“Raid-etan zaldiak
dituen baldintza fisikoak
sumatu behar dituzu”*

- 16 -



Betidanik ezagutu dugu Ayestaranarren zaldiekiko zaletasuna. Baina zaletasunaz gaindi, duela 10 urte hasi zen kirol bezala hartzen Paco Ayestaran, sukaldari ofizioz, zaldun afizioz. Azkeneko saria maiatzaren 30ean lortu zuen, Añezkarren burututako Nazioarteko Zaldi Raid Txapelketa irabazi zuenean (CEI, Competition Endurance International). Hori lortzeko ikusten ez diren ordu asko daude, bai entrenamendutan eta baita zainketan ere.*



40 zaldun inguru aritu ziren Añezkarko raid-ean. Ayestaraneke Neron Polvorillo zaldiarekin egin zuen raid-a.

Añezkarko raid-a nolako proba izan zen?

CEI* izan zen, hau da, 90 kilometroko lasterketa gutxi gorabehera. 40 zaldun inguru atera ginen. Raid mota hone-tan 3 atsedenaldi egiten ohi dira, bakoitza 30 minutu ingurukoa. 18'88 kilometro orduko abiadura izan zen media. Neron Polvorillo zaldia lehena iristeaz gain, baldintza hoberenetan iritsi zen, Best Condition delako saria ere jasoz. Sari edo lorpen hori raid-a bera irabaztea baino garrantzitsuagoa iruditzen zait. Egin ditudan raiden artean hau gehien kostatu zaidana da, ez naiz inoiz horren muga-mugan aritu.

Raid lasterketa motak zaldiaren ezaggarriak edo bere bizi konstanteak kontrolatzen ditu bidean zehar, ezta?

Bai, esan bezala atsedenaldi horietan albaitariak egoten dira eta zuk zeuk zaldia errekuiperatu dela ikusten duzunean, beraiengana joan eta eurek hori egiaztatu egiten dute. Zaldia errekuiperatzeko 20 minutu dituzu. Zertxobait herrenka daudela ikusten badute (baita nik neuk ikusten ez ditudan zantzuekin ere), edo bizi konstante horiek neurri zehatz batzuen barruan ez badaude txapelketatik kanpo gelditzen zara. Alde batetik, bere taupada kopurua kontabilizatzen dute, gero hidratazio maila (hortzoia begiraturaz), hirugarrenik, herrenkaldiak eta bukatzeko zerra edo hesteetako mugimendua. Kontrol hauetako bat pasata hurrengo fasea egiten uzten dizute. Hirugarren faseko



“Gustura hartuko nuke zaldian ibiltzen hasi nahi duen edonor”

kontrola motzagoa izaten da eta helmugara iristen den lehenak irabazten du, baina 30 minutuan errekuiperatuta egon behar da zaldia.

Raid-a zaldia sufritzen ez duen lasterketa mota da, baina...

Bai, hala da. Baina adibidez, Añezkarrren jekeen bi zaldiek momentu batean ez zidaten pasatzen utzi (hori ez

da legala), eta halako batean horietako zaldi bat lehertu egin zen. Ondorioz, bere taldekidea zen beste zalduna gelditu zen ere. Nik, orduan, aurreratu nituen eta lehena iritsi nintzen. Baina bi horietako zaldun batek, zera egin zuen: nire atzetik 30 segundo beranduago sartu zen baina txapelketatik kanpo gelditu zen ez zuelako albaitarien kontrola pasa. Areago, 15 litro suero eman behar izan zizkieten, deshidratazioa zelareta. Gelditu zen bestea 10 minutu beranduago iritsi zen baina, hala ere, bigarren egin zuen.

Zer dakar zaldunarentzat horrelako proba garrantzitsu bat irabazteak?

Zaldun bezala deiak jasotzen dituzu beste ondorengo raidetan beraien zaldiekin lasterketak egiteko, baina askotan ezetz esan beharrean nago: ni sukaldaria naiz, eta raidak asteburutan dira. Zaila da hori bateratzea. Pentsa, Añezkarrren lasterketa egin ahal izateko sukaldari bat kontratatu behar izan nuen. Añezkarko txapelketarako Kataluniako zaldi zoragarri bat eskaini zidaten eta berarekin egin nuen (Neron Polvorillo). Eskaintza egin zidaten eta nik baiezkoa erantzun.

Zergatik daude raid-erako zaldiak?

Dirua mugitzen dutelako. Erosleak herrialde arabiarretan daude. Onak ateratzen diren zaldi hauek guztiak erosi egiten dituzte. Añezkarrren jekeen bi zaldi aritu ziren, eta ziur aski 120 km-ko raiden

elkARRIZketa:

“Raid motzenak 40 kilometro ingurukoak izaten dira”

bat egiten dutenean oso prezio altuaren truke salduko dituzte. Hemen ikusten dituzun zaldi hauengatik 1000 euro ordaindu ditzakezu. Ez da asko, baina gero jaten eman behar diezu, albaiariarengana eraman, aseguruak ordaindu... eta hori asko kostatzen da. Horregatik, azken finen, zaldien jabeek noizean behin zaldiren bat saldu beharra dute, gastatutakoa errekuperatzen joateko-edo.

Zenbat zaldi dituzu raidetarako?

Ba honetarako hiru ditut, hirurak arabiarrik. Denak erositakoak dira, baina egunen batean nik hezitako moxalaren bat erabili nahiko nuke. Bi ditut horretarako, raidetarako hezten. Raid-etan dabilzanak Mariposa, Gacela eta Baresi (etxean Berexi deitzen diogu) dira. Arabiarrak zaldi txikiagoak dira gure ingurukoekin konparatuta. Hiru orno eta hiru saiheks gutxiago dituzte. Fisikoki ere desberdintasunak dituzte: txikiagoak izateaz gain, arabiarren isatsa goragotik hasten da, eta lotuta dagoen motots itxura izaten du. Muturra ere barruraka bezala sartzen zaio.

Zein da raid bat ongi egiteko sekretua?

Lorpena honakoan oinarritzen da: alde batetik zaldiaren talentuan, animaliak

duen berezko horretan. Eta bestetik prestakuntza. Ez dago beste sekreturik. Dena dela, kirolari batek entrenatzen denean badaki nola dagoen bere gortutza, baina zaldi bat entrenatzen ari zarenean, momentuan duen neke edo baldintza fisiko horiek sumatzen jakin behar duzu. Raidetarako erabiltzen diren zaldiak arabiar puruak (txikiak eta motzak) edota angloarabiarrak dira (hipodromoetan ikusten direnak).

Zein dira lasterketa hauetarako behar diren ezaugarriak?


Hasteko, raid maila desberdinak daude. Motzenak 40 kilometro ingurukoak dira. Gero badira 60koak, 80koak, 120koak eta baita 160koak ere. Gainera, 5 urtetik beherako zaldiek ezin dute 40tik goragoko raidik egin, oraindik beratzak daudelako, samurrak, guztiz egin gabe bezela. Beraz, 5 urtetik gorakoak izan behar dira animaliak. Bestetik, zaldunak ongi ezagutu behar du bere zaldia eta distantzia zehatz bat eskatzen diren baldintza horietan zenbatean egingo duen aurrekusi edo aurrezagutu behar du. Horregatik entrenamenduak oso garrantzitsuak dira. Dena dela, zaldi edo behor talentuduna izan beharra du, eta noski, erresistentzia onekoa.

Edozein aurkeztu daiteke raid horietara?

Raid lasterketa hau egin aurretik promozio lasterketak egin beharra dituzu, hau da; raid txiki edo motz horiek: 40, 60 eta 80 kilometrokoak, hain zuzen. Hauetan 16 kilometro ordukotik ezin zara pasa. Zaldiak hauek behin eginda, benetako Raidak egin ditzakezu. Izar bateko raidak (90 km inguru, Añezkarrren irabazitakoa adibidez), bikoak (120 km) edo hirukoak (160 km). Benetako raid hauetan zuk erabakitzen duzu zein abiaduratan joan daitekeen zaldia baina kontuan izan behar duzu proba bukatzeko gai izan behar dela, noski.

Eta kirol honetan zailena zer da?

Aguantatuko zaituen familia bat izatea. Korrikalaria izandakoa naiz eta fisikoki oso gogorak ziren entrenamenduak, baina oraingoak oso-oso luzeak dira. Astean 5-6 egunetan eta aldiko lau orduz. Berdin du zein eguraldi egiten duen: zaldiarentzat okerrena beroa eta ezpak dira. Egun batean trostan ibiltzen gara, beste batean eskualde aldapatsuetara joaten gara, eta hiru bat egun mendian zehar paseatzen: hauek zaldiarentzat gozoenak dira ez diozulako



Astean 5-6 egunez entrenatzeaz gain, zaldien zainketaz ere arduratzen da.



Paco Ayestarane 2 behor eta zaldi bat ditu raidetarako prestatuta.



Raidetan zaldien egoera fisikoa zaintzea ezinbestekoa da.

lesiorik eragiten eta nolabait esateko, erresistentzia lantzeko balio dute. Esan beharra dut Anjel Buldaine asko laguntzen didala, berak ere zaldiak entrenatzen dituelako mendira ateraz gehienbat. Nire emaztea Mirenek ere asko laguntzen dit. Laguntzarik gabe ezingo nituzke ditudan 3 zaldiak prestatuta eduki.

Baina ez da entrenatzera mugatzen soilik.

Ez da bakarrik entrenatzea, zaldiak zaindu ere egin behar dituzu: garbitu, jaten eman, pentsua, ahotza, azpiak garbitu, zaldiak orraztu, 6-8 astetik behin ferratu... Eta horrez gain, sukaldaria naiz!

Raid-etan ere laguntza izatea komeniko da, ezta?

Bai, al baitarien gune horietan zaldiak atsedean hartzeko eta errekupeatzeko nire emaztea, Anjel eta Iñigo Irazoki ere egoten dira. Zaldia pixka bat hozten, ura ematen, behar denean jaten, eta abar. Horrez gain, autoz al baitarien kontroletara gerturatu behar dira, iristen naizenerako laguntzeko prest egoteko. Pultsometroarekin nagoenean, bota behar zaion ur kopurua adosteko

“Poztuko ninduke lasterketa mota hauekiko afizioa zabaltzeak”

une horretan urduritasuna sentitzen da batzuetan. Kar-kar!

Esango zenuke gurean zaldiekiko afizioa dagoela?

Ez gehiegi, baina gustatuko litzaidake. Araitzen badago neskaren bat, Ane Zabala, eta Larraunen bizpahiru nik dakidala. Adibidez, Ainara Mikeok Mariposarekin promozioko bi raid egin ditu jada. Herralde Katalanetan askoz gehiago dago, Galizan ere bai, Madrilen... Guri dagokigunez, poztuko ninduke lasterketa mota hauekiko afizioa zabaltzeak. Nik nire zaldiak prest ditut horretarako eta gustura artatuko nituzke zaldunak. Zaldian ibiltzen zertxobait jakitea beharko litzateke, baina norbaitek zaldian ibiltzen hasi nahi duela esaten badit, ni pozik! Pozgarria izateaz gain, aldi berean nire zaldiak entrenatu egi-

ten dira eta hori laguntza handia da. Gonbitea egina dago.

Aldaketarik ba al dago duela 10 urteko eta oraingo raid-aren artean?

Azkenaldian Europan ibilaldiak lautzeko joera dago, probak azkartzeko-edo eta ikusgarriagoa egiteko, eta ez dira paisaia horren malkartsuak edo desorekatuak bilatzen. Hala ere, mendikoak eta teknikoagoak diren raid-etako zaldiak ere oso preziatuak dira herralde arabiarretan. Azken finean, mendian ongi ibiliko dena, basamortuan ere bikain ariko da.

Zein da zure hurrengo erronka?

Uztailaren 18an Olaberriako Raid-a egingo dugu. Promozioko 80ko bat egingo dut Mariposarekin eta Baresirekin. Bi zaldun joango gara.

Neron Polvorillo, Dinamic de Graells, Pumuki Ttorre... zeinek demontrek jartzen dizkie izenak?

Ba jabeek... Nik erosten ditudanerako beraien izena dute fitxan, nahiz eta gero batzuetan nik nire modura deitu. Baresi bezala: guk Berexi deitzen diogu.

Lagunasesoria S.L.
Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

SAN MIGUEL
 gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099
 Arribe-Atallu

German Lasarte
ARBEONDO
HARATEGIA
 Aralar kalea 9
 Lekunberri
 948504157

OKM
ABOKATUAK
 Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua
 Arretxea, 1º, Alii. Tfnoa: 609 130 555



“Arribetarra izatea da baldintza bakarra”

25 urte bete berri ditu Arribeko Elorri Elkarteak. Joan den hilaren 13an ospatu zuten bazkideek festa eder batekin. Goizean herri kirolak egin zituzten, ondoren ehun lagun baino gehiago elkar-tu ziren bazkaltzera eta arratsaldean dantzaldia. Angel Otaegi eta Javier Aristik ongi gogoratzen dute nola sortu zuten elkarteak eta hasierako urte haietan izan zuen martxa.

Elkarteak nola sortu zen gogoratzen al duzue?

Javier: Bilera batzuk eginez... Hau lehendabizi herriko taberna izan zen.

Angel: Herriko batzuk eramaten zuten eta oso ongi funtzionatzen zuen. Gero haiek utzi zutenean kanpoko jendea etorri zen taberna eramatera eta gaineko etxebizitzan bizitzera. Baina erakina gehiegi zaintzen ez zutelarik ikusita herrian batzarra egin zen eta erabaki genuen elkarteak egitea.

Javier: Jendea behintzat gustura etortzeko...

Angel: Hasiera kostatu egin zen e!

Arribekoak soilik izango zirenen bazkide...

Javier: Bai, bai, Arribekoak. Arriben jaiok edo kanpokoak baziren Arriben bizi zirenak. Orain ere hala da.

Eta hasiera zergatik izan zen zaila?

Angel: Arazoak eduki genituen herriko batzuk kontra zeudelako. Herriko etxea izanik elkarteak sortzea pribatuagoa bihurtzea iruditzen zitzaien.

Javier: Baina hiru katu baino ez ziren hori ziotenak.

Angel: Bai eta azkenean elkarteak egitea erabaki zen eta talde bat sortu zen bes-

te elkarteek nola funtzionatzen zuten jakiteko eta arautegia prestatzeko etab.

Eta ordurako Araizko gainontzeko herrietan elkarerik bazen?

Javier: Hemen Azkaratekoa eta Intzakoa. Horiek urte asko daramatzate, Intzakoa izango da zaharrena.

Eta eraikinak berrikuntzak egin zenuztuzten sartzeko?

Javier: Lan txiki batzuk egin ziren, komunak berritu, sukaldean aldaketa batzuk ere egin ziren...

tan ama bazkidea da eta hiru senide gara eta hirurak bazkide.

Elorri izena nondik dator?

Javier: Hori ez dakit nondik atera genuen. Ez naiz gogoratzen.

Eta gaur egun ze martxa du elkarteak?

Angel: Gure koadrilan aste-burutan ia larunbatero izaten dugu afaria hemen eta hamabi lagun baino gehiago biltzen gara. Orain beteluar batzuk ere etortzen hasi dira eta bi hilabetetik behin afariren bat Betelun egiten dugu. Baina normalean hemen elkartzen gara.

Javier: Hemen jende langilea baitago. Angel bera oso langilea da eta jendea lanera baino gehiago jatera

Zuzendaritza batzordean beti betikoak ibiltzen zarete? Edo taldea osatzeko ez duzue arazorik izaten?

Javier: Horretan kristoren zortea daukagu, egungo gazteek borondate handia dute eta oso ongi doa.

Angel: Bai, baina momentu



bat iritsi zen denak hortik pasa ginela eta gogoratzen naiz bileran batean aipatu zela ordaindutako pertsona bat jartzeko biltegiko kudeaketa eramateko etab. Eta nik esan nuen taldekideak aurkitzen baldin banituen prest nengoela lan hori boluntario bezala egiten jarraitzeko. Eta geroztik baluntario taldearekin funtzionatzen dugu. Talde hori arduratzen da elkarteko kontuak eramateaz, biltegiak eta lanen bat egin behar bada egiteaz... Garbiketarako pertsona bat dugu kontratatuta.

gustora etortzen da.

Angel: Bueno baina oso ongi moldatzen gara, batzuk afaria prestatu, beste batzuk garbitu, kafeak atera...

Elkartea eraikina- ren lehen solairuan egin zenuten?

Javier: Bai. Beheko taberna festetan baino ez zen erabiltzen eta pentsatu genuen obra pixka bat egin eta erabilera handiago ematea. Hor ere eztabaida izan zen, gazteek egin beharreko gastua ote zen... Baina horrekin ere aurrera egin zen.

Eta orain nor sar liteke bazkide?

Angel: Hemezortzi urtetik gorako edozein arribetar sar liteke. Garai hartan ere gazteak eta helduak ibiltzen ginen elkarteetan.

Javier: Oso ongi eraman izan gara beti eta batzuetan afariak elkarrekin egiten genituen zahar eta gazte, beste batzuetan banatuta, baina giro ona izan da beti.

Eta emakumeak eta gizonak berdintasunean?

Angel: Bai, bai. Hemen jada herritar gehienak bazkide dira. Gure etxean ber-

Eta asteburutako afariez gain bertso-afariak edo bestelakoak antolatzen dituzue?

Angel: Garai batean antolatzen ziren...

Javier: Bai, baina orduan ere jendea pixkanaka hasi zen kexatzen, beti bertsolariak ekartzen genituela eta zoritxarrez harrezkeroztik ez da ezer bezirik antolatu.

Angel: Mus txapelketak ere egiten ziren hasieran.

Eta orain gazteek zer egin behar dute elkartean sartu ahal izateko?

Angel: Beste elkarte askotan sartzeko normalean ordaindu egin behar izaten da, hemen doakoa da. 18 urte betetzerakoan bazkide egin eta hilabeteko kuota ordaintzen hastearekin aski dute gazteek. Hamabi euro ordaintzen dugu kuota eta arribetarra izatea da baldintza bakarra.

AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA
· HARATEGIA ·
PATXI GALARZA
Astelehenetik larunbatera
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta Jailegunetan
8:00 - 14:00
Irurtzun

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

INFORMATIKA BETELU
► ordenagailuen salmenta eta konpontzea
► sareen instalazioa eta konfigurazioa
634 551 743
informatika.betelu@gmail.com

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS
Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

Sutan saltoka

Antzinako ohiturari jarraituz eskualdeko herri askotako kaleetan suak piztu zituzten San Joan bezperan. Aurretik bildutako, paper, kartoi eta adarrekin tamaina ezberdinetako suak egin zituzten Lekunberriko udaletxe aurreko plazan. Eta ausartenak saltoka zebiltzan bitartean beste askok udalak eskainitako jan-edanaz gozatu zuten.

Betelun, presan ospatu zuten San Joan bezpera. Ederki afaldu ondoren, hiru su piztu zituzten han. Gaztetxoenen ilusioaz kutsaturik zenbait heldu ere animatu ziren salto egitera.



Arrakastatsua izan da aurtengo Larraungo Eguna

Ekaina ekitaldiz beteta zetorren eta antolatzaileak beharturik bi asteburu ezberdinetan banatu behar izan zituzten aurtengo ekitaldiak, baina horrek ez zuen jai giroa zapuztu. Ekainaren 20an Errazkinen Tirikitrauki dantza taldearen emanaldia, pilota eskolako haurren partida eta txikienentzako zirko tailerra izan zen. Eta iluntzean Juanluzenea Sagardotegiak barrikotea eskaini bitartean Mikel Lasarte eta Ortzadar dantza taldeko kideek giro ederra sortu zuten plazan, larraundar guztiak dantzan jarritz. Ekainaren 28an berriz, Mugiroko festen baitan ospatu zen ospakizun nagusia. Goizean txistulariak ibili ziren Larraungo hainbat herritan barna. Eta Mugiron bertan herri kirolak, kontzertua, herri bazkaria haurrentzako jokoak eta tailerrak izan ziren. Horra hor aurtengoak utzitako zenbait irudi.

asegurogintza



aseguru
aholkulariak

**Zure ondarea
eta segurtasuna
babesteko modu
bakarra behar bezela
aseguratua egotea da**

Telefona: 943652220. asegurogintza@aseguroak.net
Lizardi Olerkaria 1, 20400 Tolosa

CONSTRUCCIONES GAÑARBE ERAIKUNTZAK S.L.



Etxebizitzaren eraikuntza
eta errehabilitazioa

948 504 351 - 616 457 540
construccionesganarbe@gmail.com

Oztegin kalea 2, Lekunberri

Hasi dira herriz herriko festak

Hileko azken asteburuan ospatu zituzten sanpedroak Mugiron eta Betelun. Aurtengoan Larraungo Eguna sanpedroen baitan ospatu zuten Mugiron. Ostiraleko herri afariarekin hasi zituzten festak, larunbatean urteroko erronda, pilota partidak eta barrikotea izan ziren. Eta igandean Larraungo Eguneko egitarauarekin batera ospatu zituzten festak. Herri bazkariaren ondoren Oskar Estangak eta Larraungo Bertso Eskolako bertsolariak alaitu zuten giroa. Betelun, ostegunetik astelehenera bitarte luzatu zituzten sanpedroak. Eta han ere gaztetxo zein helduentzako ekitaldiekin osatu zuten egitaraua. Horra hor bildutako zenbait irudi.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



BACALAO ELKANO S.L.

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com



Pilota partiduak herriz herri

Larraungo Udaberriko Pilota Txapelketa jokatzen ari dira Larraungo Pilota Eskolako ikasleak. Astebururo Larraungo herri ezberdinetan jokatzen dabilta. Uda honetan pilotan aritzeko aitzakiarik ez da. Lekunberriko frontoia irekita egongo da asteen zehar 9:30etik 22:00etara eta asteburuan 10:00etatik 22:00etara. Lehentasuna Pilota Eskolak eta erreserbatu-takoek izango dute (Erreserba egiteko eman izena: 948 50 73 77 telefono zenbakian edo plazaolakirolgunea@gmail.com e-postaren bitartez). Gainera, eskualdeko gainontzeko herrietan ere nahi beste frontoi eta aukera bada.



Igeriketa ikastaro jarraia abuztuan

Igeriketa ikastaro jarraiak eskaintzen dituzte aurtengo udan Plazaola Kiroldegian. Uztaileko ikastaroan izena emateko epea dagoeneko amaitu den arren, oraindik abuztuko ikastaroa egiteko aukera badago. Bazkideentzako uztailaren 8an hasten da izen-emate epea eta bazkide ez direnentzako berriz uztailaren 13an. Prezioetan ere aldea dago. Bazkideek 37,50 euro ordaindu beharko dituzte eta gainontzekoek 75 euro. Gainera, mailaren arabera egokitutako ikastaroak daude (ordutegiak):

Hobekuntza: 10:30 – 11:15

Hastapena: 11:15 11:45

Familiarizazioa: 11:45 – 12:15

493 korrikalari sailkatu dira EHME proban

Daniel Agirre eta Elena Calvillo izan ziren aurtengo Euskal Herria Mendi Erronka probako irabazleak. 6 ordu eta 42 minutu behar izan zituen lehenak eta 8 ordu eta 23 minutu emakumezkoetan lehenak. Maiatzaren 30ean Leizatik hasita egin zuten 65 kilometroko lasterketan 493 korrikalari sailkatu ziren. Hirugarrena izan da aurtengoa eta iaz ez bezala aurten egun ederra izan zuten mendizaleek. Antolaketan eskualdeko jende ugari parte hartu du, izan ere ibilbide osoan zehar zortzi anoa-postu zeuden eta halako proba bat presta-tzeak lana eskatzen du, batez ere ibilbidea prestatzen.

120 mendizalek parte hartu dute Aralarko XIV. Mendi Ibilaldian

Aralarko XIV. Mendi Ibilaldian 120 lagunetik gora parte hartu zuten. Martxa hau Ibilbide Luzeko VIII. Martxa Txapelketaren baitan antolatzen du urtero Ttuturre Kirol Elkarteak. Mendizaleak goizeko zazpitan irten ziren Lekunberritik eta Larraungo parajeetan barna ibili ziren. 32 kilometroko ibilbidea izan zen aurtengoa, 1.000 metroko desnibelarekin. Lekunberrin ibilbidea amaitu eta gero paella eta sagardoarekin indaberri-tu ziren.



44,4 km-rekin gainditu du errekorra Ibon Urtiagak

Aurreko alean aurreratu genizuen Ibon Urtiaga beteluarra Master 30 kategoriako Espainiako Orduko errekorra gainditzeko saiakera egitekotan zela. Eta egin eta lortu. Joan den ekainaren 6an Valenziako Luis Puig Belodromoan Urtiagak Ruben Ruizek 2010ean lortutako errekorra gainditu zuen. Ruizek 43,078 kilometrotan zuen marka jarria, baina beteluarrek 44,4 kilometro egin zituen. Ordu betez ahalik eta kilometro gehien egitea da probaren helburua eta gogorra izan arren, egindako lanak merezi izan dio. Zorionak!





txapelketa bi aldiz, Gipuzkoakoa eta Euskal Herrikoa baita ere.

Eta debutatuz geroztik ze alde nabaritu duzu?

Nabaritzen da maila handiagoa dagoela, egia esan, gusturago nabil. Pike handiagoa dago jokalarien artean. Hemen azkenean beti berdinak ibiltzen ginen aspalditik eta ez ginen asko ere. Nafarroa eta Gipuzkoan asko jota zapi jokalaria egongo ginen.

Eta orain non aritzen zara entrenatzen?

Hernanin, Galarretan. Gutxienez astean behin joaten naiz. Normalean ostegunetan eta larunbatetan partida izaten dugu. Gero bakoitzak bere kabuz entrenatzen du. Niri gimnasioa ez zait gustatzen, korrika egiten dut edo mendira joaten naiz.

Eta erremontean zer da gehien landu behar duzuen?

Gehiena teknika, erresistentzia ere behar da dudarik gabe eta baita indarra ere, baina indarra izan arren, teknikarik ez baduzu alperrik da.

Eskuek kirol honetan ez dute sufrituko...

Ez, ez eskuek ez, besoa da kargatzen

“Nabaritzen da maila handiagoa dagoela, baina gustora nabil”

dena. Gainera beti eskuinarekin aritzen gara eta nekatu egiten da. Badi-ra erremontistak eskuineko tendoia ezkerrekoa baino askoz ere handiagoa dutenak. Baina partidetatik kanpo ariketa fisikoa egitearekin ezkerre pixka bat lantzen da orekatzeko. Bestalde, kaskoa eta belauetakoa ere erabiltzen ditugu eta hala ere pilotak abiadura handia hartzen du eta kolperen bat edo beste hartzen dugu.

Atzelaria zara...

Bai, hasieratik atzelari bezala hasi nintzen eta ongi moldatzen naiz. Entrenamenduetan noizbehinka aldatzen ditugu postuak, baino bakoitza gure lekuan jokatzeraz ohituta gaude jada.

Ikasten ere bazabiltza...

Bai oraintxe bukatu dut agropokua-riako erdi mailako gradu bat.

Eta nola moldatzen zara? Entrenamenduak, ikasketak, partidak...

Bueno moldatzen naiz.. Erremontean bizitzerik ez dago eta aurrerantzean ere lan egin beharko da.

Eta orain udan juergak direla eta ez direla...

Festa egiten dut, baina batzuetan koxea hartzen dut nahita, txintxoago ibiltzeko.

Partidak zenbatera izaten dira?

Ostegun eta larunbatetan lau partida jolasten dira: aurrenekoa 35era izaten da, beste biak 40ra eta azkenekoa 30era.

Partidak dituzun egunetan ezer berezirik egiten duzu?

Ez ez, partidaren aurretik gutxiago jan baina bestela... Ez dut ezer berezirik jaten etxean jartzen dutena.

Lagunek eta zer esaten dizute?

Lagunak pozik, egia esan, egunkarian albistea atera zen arte ez nien ezer esan, gu geu ere ez geundelako ziur.

Eta etxeokak?

Etxekoak ere pozik, aita afizioa badu eta ia partida guztietara joaten da. Gomendioak ematen dizkit eta entzun bai baina batzuetan ez diot kasu gehiegirik egiten gero... [Kar-kar-kar...].



Zoriondu itzazu zure lagunak edo senitartekoak
Mailope aldizkariaren bitartez!

KuxKuxean

Javier Castellano Sola
Uztailak 27, urte 1
Zorionak etxeko txikiari, muxu
haundi bat zure sendiaren partez.



Eneritz
Uztailak 31, 13 urte
Zorionak Eneritz!!! Oso ondo
pasa zure 13. urtebetetzea.
Muxu haundi bat Aita, Ama,
Malen eta Andoitzzen partez.



Jon Ordorika
Ekainaren 28an, 10 urte
ZORIONAK JON! Ongi pasa zure
hamargarren urte osoa eta segi
gauza guztiakin disfrutatzen,
zuk dakizun bezala.
Muxuak etxekoan partetik eta...
AUPA ATHLETIC!!

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.



**GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA**

948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

**TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-
LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA**



ALIPROX
Lekunberri
janaridenda

hamabostaldi
eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA



696 658 288
LEKUNBERRI



**SUAKONTROL
LEKUNBERRI**
Suaren kontrako plakak



Oztegin kalea 25,
Lekunberri
948 60 48 96 (Tel.)
948 60 45 16 (Faxa)
suakontrol@grena.es
www.grena.es

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41 Lekunberri
Fax 948 60 45 20 urzubi@hotmail.com



NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com



AMAIRU BAR
ETXKO PIZZAK,
KOPA BEREZIAK
948504352



948
60
48
21

KANTINA
bokatak, platerak eta...musika



TAXILON

661 202 249
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz

Lontxo
Otamendi
Artola



> Plazaola Partzuergoa

20 URTE BIDEAN



SL-NA 285 2 ordu 15min / 6,4 km



LAPURREN KALTZADA

Gaztelakoek Gipuzkoa, Nafarroako Erresumatik bereizi zutenean, muga hauek oso gatazkatsu bilakatu ziren eta egoeraz baliatuz lapurretak ere oso ohikoak omen ziren, XIV. Mende aldera gehien bat.



Hala, "Gaizkileen muga" gisa ziren ezagun inguru hauek guztiak: Leitza, Areso, Gorriti, Goizueta...

Ibilbide hau, garai haietako oroimenen oihartzuna gordetzen duen parajeetan barrena doa.

Hemendik gora joanda, Leitzalarrean dagoen Iskibarko gunera iristen da.

Ibilbidearen joan etorria 6,4 kilometrokoa da eta 240 metroko desnibela du. Lasai asko egin liteke bi ordu eta zertxobait gehiagotan.

Plazaolako trenbidetik ekingo diogu bidaiari. Zenbait zubi zeharkatu beharko ditugu bidean. Abereentzako hesiren bat edo beste zeharkatu behar da tarteka. XVI. mendeko Ixkibarko burdindegia zegoen lekutik ere pasako gara, baita Urremeatzeta meategiko trenbidetik ere.

Gaztandegia barrutik ezagutaraziz

Antsonea Gaztandegian Mainer Agirrebarrena, Peio eta Jon Goikoetxea aritzen dira lanean. 2009an hasi ziren gazta egiten Uztegin eta orain bezeroarekiko harremana sendotzeko asmoz bisita gidatuak eskaintzen hasi dira.

Bisita gidatuen ideia nolatan bururatu zaizue?

Mainer: Gehien bat salmenta zuzena bultzatzeko asmoarekin jarri dugu martxan eta baita jendeari gaztandegia eta gazta nola egiten dugun erakusteko ere.

Peio: Udan gazta egiteari uzten diogu eta belarrarekin ibiltzen gara, baina lanbide honi beste errentagarritasun bat ateratzeko bide bat izan liteke.

Orain arte nola saltzen zenuten gazta?

Mainer: Azoketan eta Iruñea eta Tolosa arteko denda eta harategitan saltzen dugu. Bisita hauen aitzakiarekin, jendea guregana hurbiltzen da eta aukera polita da jendea sentsibilizatu eta gazta baten atzean dagoen lanaz eta esfortzuaz ohartarazteko.

Peio: Hemengo jendeak hori dena badaki, gehien bat kanpoko jendeari begira prestatu dugu. Eskualdeko landetxeetara etortzen diren kanpotarrei eskaintzeko.

Mainer: Egia esan, hemen turistei eskaintzeko ez dugu gauza handirik antolatuta eta halako gauzak interesgarriak izan daitezkeela uste dugu.

Orain arte halako eskaerak jasotzen zenituzten bezeroen edo turisten aldetik?

Peio: Gu Plazaola Partzuergoko bazkideak gara eta hango publikitatearekin soilik batzuk deitu egiten ziguten. Baina gu orain arte ez geunden prestatuta.

Mainer: Dena den inoiz hartu izan ditugu taldeak. Lehengo urtean pare bat taldetxo etorri ziren eta inprobisatutako bisitak egiten genizkien. Orain dena behar bezala prestatu dugu, aurretik jakinda zer erakutsi nahi diegun eta nola.

Eta nolakoak izango dira bisitak?

Mainer: Gure asmoa hasteko ikus-entzunezko batzuen bitartez gazte egiteko



prozesua erakustea da. Txikienez zako asto eta behor batzuk jartzea pentsatu dugu hurrek bueltaxka bat emateko. Untxiak ere baditugu eta animaliekin kontaktua lantzea ere gustatuko litzai-guke. Ondoren instalazioak ikustera joango ginatke, granjakoak eta gaztandegikoak. Eta amaitzeko gazta dastaketa bat eskainiko dugu. Oso tarta ordu eta erdiko bisitak izanen direla aurreikusten dugu.

Orain arte jendea etxera etortzen al zitzaizuen gazta erostera?

Mainer: Eta askotan gertatu izan zaigu jendea gazta erostera etorri eta bi orduz hitz egiten gelditzea. Eta zu gustora baina lanera joan behar. Horregatik, inork gehiago ezagutu nahi bagaitu izango da aukera. Baina gazta erostera edozein momentutan etor daiteke, atea zabalik daude.

Bisita gidatuei harrera egiteko lekua ere prestatu duzue...

Mainer: Bai, dendatxo bat egin dugu ikus-entzunezkoak jarri eta dastaketa egiteko. Oraingo ostegun, ostiral eta larunbata goizetan jarri dugu bisitak egiteko aukera, baina eskariaren egokitzen joan beharko dugu.

Peio: Oraingo uda honetan proba egingo dugu eta ikusi egin behar nola moldatzen garen.

Eta ze prezio izango dituzte bisita gidatu horiek?

Mainer: Zazpi euro hamabi urtetik gorakoentzat, hiru euro hiru eta hamabi urte arteko eta hortik beherakoentzat doan izanen da.



uztaila

1

Mendukilo: *Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra Astitz Espeleologia erakusketa Mendukilon.*

21

Lekunberri: 22:00 frontoian *Udako Zinema.*

22

Astitz: *Mendukilo Koben urteurren festa.*

28

Lekunberri: 22:00 frontoian *Udako Zinema.*

abuztua

4

Lekunberri: 22:00 frontoian *Udako Zinema.*

9

Lekunberri: *Erdi Aroko Azoka*

11

Lekunberri: 22:00 frontoian *Udako Zinema.*

29

Astitz: *Akelarrea eta sorginkeriak Mendukilo koban.*

agenda

UZTEGIKO FESTAK 2015

ABUZTUAK 14, OSTIRALA

20:00 Txupinazoa

20:30 *Preso politikoen eskubideen aldeko konzentrazioa.*

20:00 Herri afaria

24:00 Dantzaldia

ABUZTUAK 15, LARUNBATA

12:00 Pelota partidak.

17:00 Ume jolasak eta mus txapelketa

20:00 Dantzaldia palazan.

merkatu txikia

LAN BILA

- 42 urteko emakume euskalduna **persona helduen zainketarako** eskaintzen da. 610 494 770.

- Udararako **haur zaintzailea**. Asteburu nahiz astean zehar zaintzeko bidea. Laguntza edo errefortzu klaseak emateko aukerarekin. Tlf: 615 70 93 91

Udako 1. jardunaldiak

SATOR-FILM



Uztailak 8
El lobo de Wall Street

Uztailak 15
Lasa eta Zabala

Uztailak 22
Los rebeldes del futbol

Uztailak 29
Zeitgeist



Azkarateko festak

Uztailak 4, larunbata

17:00 Txupinazoa eta ezkilak jotzea
17:30 Haurren herri kirolak
18:30 Herri kirolak: Askatearrak vs Gaintzetarrak
21:30 Herri afaria
00:30 Gabenara taldea

Uztailak 5, igandea

12:00 Ume jolasak eta txokolatada
18:00 Nafarroako segalari txapelketako finala. Patata tortila lehiaketa, eta sagardo eta pintxo dastaketa. Arratsalde osoan, Lutxurdio eta Astiazaran II trikitilariak

Uztailak 7, asteartea

11:00 Eliza eta ermitako ezkila jotzea eta erromeria. Meza San Fermingo ermitan. Eguerdian, Otsolar dantza taldea eta bertsolariak (Sebastian Lizaso eta Angel Mari Peñagarikano)
14:30 Bazkaria bertsolari eta trikitilariekin
18:00 Araxes pilota eskolako ikasleen partiduak
19:00 Bertso pilota. Jauregi-Lizaso, Oreja-Peñagarikano. Egun osoan zehar, Izer eta Narbaizar trikitilariak

Uztailak 31, ostirala

11.30 Pestetako apaingarrik prestatuz
17.00 Ezkil jotzea eta txupinazoa.
22.00 Patata tortila txapelketa eta herri aparie
00.00 Dantzaldie

Abuztuak 1, larunbata

10.00 Erronda
16.30 Jokuak
17.00 Mus txapelketa
17.30 Frontenis txapelketa
20.00 Rock kontzertua: Directo al recto
22.00 Herri aparie
00.00 Dantzaldia: Gabenara

Abuztuak 2, igandea

11.30 Umeentzako tailerrak: esku lanak
13.30 Bermuta
17.00 Pilota partiduk. Herri kirolak eta txokolatea
22.00 Zinea

Abuztuak 3, astelehena

12.30 Meza San Estebanen izenen
14.00 Herri bazkarie

Jai Zoriontsuak!

Abuztuak 6, osteguna

11 .00 Jaien hasiera suziriarekin
12.00 Meza nagusia
14.00 ZIKIRO JATEA. Ondoren dantzaldia, JOXE ANGEL-ekin

Abuztuak 7, ostirala

10.00 Mendi martxa
16.30 Mus txapelketa
17.00 Toka txapelketak
19.30 Puskabiltza
00:30 Dantzaldia eta gaupasa, GABEZIN taldearekin

Abuztuak 8, larunbata

12.00 Puskabiltza
18.00 Ume jokoak. Ondoren, musika DJ Txokorekin
22.00 Kuadrilla aparie
01.00 Dantzaldia, TRIKIDANTZ taldearekin

Abuztuak 9, igandea

09.00 Diana txistulariekin
10.30 Meza
11.30 Herri txistorrada
12.00 Umeen arteko pilota partiduak
13.00 Helduen pilota partidua
18.00 Herri kirolak ERRAZKIN vs ATALLU. Ondoren dantzaldia AITOR-ekin.

Abuztuak 21, ostirala

10:00 Puxke biltzea Iñaki eta Joxe trikitilariekin
21:00 Herri afaria
23:00 DJ Bull

Abuztuak 22, larunbata

11:00 Larraungo pilota eskolako gaztetxoaren partiduak
18:00 Zirika Zirkus haurrentzako zirkuko jolasak: eta txokolatada.
20:00 Afalurreko dantzaldia Gabenara taldearekin
21:00 Herri afaria
23:30 Gabenarekin dantzaldia

Abuztuak 23, igandea

12:00 Herri kirolak: EHko 3. mailako aizkolari txapelketako saioa
18:30 Bertsolariak: Andoni Egaña, Amets Arzallus eta Maialen Lujanbio
19:30 Pintxoak sagardo eta ardoarekin, Iñaki eta Joxe trikitilariekin

Abuztuak 24, astelehena

14:00 Herri bazkaria, eta DJ Bull-ekin dantzaldia

Errazkingo jaiak

Arribeko festak

Uztailak 17, ostirala

20:13 Txupinazoa
21:30 Herri afaria
00:30 Zesuma taldea

Uztailak 18, larunbata

12:00 Puskabiltza
18:00 Umeentzako tailerrak eta pailazoak. Ondoren dantzaldia Laiotz taldearekin
01:00 Laiotz taldea + Dj-a.

Uztailak 19, igandea

09:00 Diana
12:00 Meza. Ondoren XV. Patata tortilla lehiaketa
17:30 Haurren arteko pilota partidak
19:00 Herri kirolak. Ondoren trikitilariak

Uztailak 20, astelehena

11:30 Puskabiltza
21:00 Herri afaria eta ingurutxo. Dj Txoko.

Gorritiko festak

Azpiozko Pestak